

KARMELE MUÑO A ARRIGAIN andreak, Bermeoko Udaleko behin-behineko idazkariak,

ZIURTATZEN DOT:

2017ko maiatzaren 15ean **Tokiko Gobernu Batzarrak** erabagi hau agindu dauela:

4.- PAPER A ETA KARTOIA BILTZEKO ZERBITZU KONTRATUA ESLEITZEA.

Planteatutako gaia

Papera eta kartoia biltzeko zerbitzua kontratua esleitzea.

Aurrekariak

Lehenengoa: Papera eta kartoia gaika biltzeko zerbitzuaren kontratua 2017ko martxoaren 15ean amaitu zan. Beraz, zerbitzu hau barriro be konkurtsora atara behar izan da, prozedura ireki bidez.

Bigarrena: Horregatik, urtarrilaren 31n Ingurumen teknikariak kontsignazioa eskatu eban. Era berean, bilketa zerbitzu hau esleitzeko Klausula Teknikoen Agiria eta zerbitzu kontratuaren Administrazio-Baldintzak zehazten dituen orriak prestatu ziren. Otsailaren 14an, Kontabilitate Sailak gastuen atxikipena onartu eban. Ostein, otsailaren 20an, Tokiko Gobernu Batzarrak zerbitzu kontratu honen baldintza-agiriak onartu eta deialdia zabaldu eban.

Hirugarrena: Otsailaren 21ean, espediente honeri buruzko iragarkia Bizkaiko Aldizkari Ofizialean plazaratzeko bidali zan. Iragarkia martxoaren 1ean argitaratu zan, bilketa zerbitzu honen oinarriekin. Egun berean, iragarkia eta plegu teknikoa eta administratiboa Bermeoko Udalaren web orrian be argitaratu ziran.

Laugarrena: Baldintza Administratiboen 8. puntuan (langile baten subrogazioa), akats bat aurkitu zen, zuzendu beharrekoa. Zuzenketa hori martxoak 13an egin zen eta martxoaren 16an Tokiko Gobernu Batzarrak zuzenketa hori onartzea erabagi eban. Plegu zuzendua udalaren web orrian eskegi zen.

Proposamenak aurkezteko epea 2017ko martxoaren 21ean bukatu zan.

Argudioak

Lehenengoa: Martxoaren 21ean, enpresa honetako proposamena bakarra jaso zan udalean: ENVISER Servicios Medioambientales, S.A. Jarraian, lehiakide horren A gutun-azala (kaudimen teknikoa eta ekonomikoa) errebisatu zan. Ondo egozala ikusita, B gutun-azala (proposamen-teknikoa) aztertu zan.



Bigarrena: Apirilaren 7an, Urigintza, Obra eta Ingurumen Saileko kontratazio mahaiak bildu zen eta aurkeztutako enpresa bakarrari ere gonbitea luzatu eutson C gutun-azala (proposamen ekonomikoa) ofizialki zabaltzeko. Beraz, hona hemen hasierako prezioa eta aurkeztutako enpresak egindako proposamena, danak BEZ barik:

Lizitazio prezioa: 15.000 €/urtero

ENVISER, S.A enpresaren eskaintza.: 14.998,80 €/urtero.
Ez dira Baldintza pleguari buruzko hobekuntzarik aurkeztu

Hirugarrena: Hau horrela, hau da lortutako puntuazioa:

	ENVISER
Prezioa (%60)	60 puntu
Hobekuntzak (%40)	0 puntu
GUZTIRA	60 puntu

Erabagia

Goian aitaturako guztia kontutan hartuta, aho batez, honako hau erabagi dau Tokiko Gobernu Batzarrak:

LEHENENGOA: Udaleko kontratua **ENVISER Servicios Medioambientales, S.A.** enpresari esleitzea **urte birako**. Kontratuaren prezio osoa 14.998,80 € + 1.499,88 € BEZ%10a = **16.498,68 €** /urtero izango da (1.374,89 €/ hilero).

BIGARRENA: Kontratuaren esleipena eta formalizazioa gauzatzeko, Plegu administratiboaren 20. atalean finkaturako prozedura jarraituko da.

Eta honela izan daiten eta ondorio egokiak eragin daizan, alkatearen aginduz eta onetsiaz, ziurtagiri hau idazten dot, eta bere xedea dan erabagia onartu barik dagoan akta batean dagoala adierazoten deusut, behin betiko onespeneraren menpean dagoela ohartarazota, Bermeon, 2017ko maiatzaren 16an.

ONETSIA
ALKATEA

